BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

1939

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 29koa, Osasun Publikoko zuzendariarena, 2012ko otsailaren 23, 24 eta 25ean «Sanea Control, S.L.» sozietateak Barakaldon emandako oinarrizko mailako ikastaroa gainditu duten ikasleei ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila) banatzeko baimena ematen duena.

Ikusi da «Sanea Control, S.L.» (Ames, A Coruña) sozietateak bidali duen dokumentazioa, 2012ko otsailean emandako ikastaroen garapenari eta ikasleek ateratako probetxuari buruzkoa. Ikastaroa ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaileentzat zen (oinarrizko maila).

Kontuan izan behar da Osasun Publikoko Zuzendaritzak 2010eko ekainaren 3ko Ebazpenaren bidez baimena eman ziola «Sanea Control, S.L.» sozietateari oinarrizko mailako ikastaroak emateko. Ebazpen hori, hain zuzen ere, abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko eman zen (257/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duena). Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila), ebazpen honen eranskin modura doan zerrendako pertsonei emateko agintzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasuneko sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 29a.

Osasun Publikoko zuzendaria,
MARÍA MERCEDES ESTEBANEZ CARRILLO.

ERANSKINA

INGURUMENERAKO ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIARAKO DIREN TRATAMENDU BIOZIDEN APLIKATZAILE TXARTELA (OINARRIZKO MAILA) ESKURATZEKO BAIMENA EMAN ZAIENEN ZERRENDA

Izena	1. abizena	2. abizena	NAN	Txartel zk.
Ibon	Berges	Ugartemendia	15256351Z	0025/2012
Alberto	López	Serradilla	20171942E	0026/2012
Juan José	López	Vázquez	44195067S	0027/2012
Johana	Mantecón	Corcobado	45674486M	0028/2012
Alvaro	Pérez	Alonso	72749295L	0029/2012
David	Rodríguez	Carracedo	44126773P	0030/2012
Juan	Romero	Cañas	30680676X	0031/2012
Eneko	Zarate	Astarloa	78883803J	0032/2012